

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

ITZULPENA¹

Araua: 1082/2006 (EE) ERREGELAMENDUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA, 2006ko uztailaren 5koa, Lurralde Lankidetzako Europako Taldeari (AECT) buruzkoa.

Ondorengo itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakunde (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiriarekin.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du inolako balio juridikorik.

¹ Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratua, hauxe da: «*Reglamento CE N° 1082/2006, de 5 de julio de 2006, sobre la Agrupación europea de cooperación territorial (AECT)*» (*Diario Oficial de la Unión Europea, L 210 de 31/07/2006*)

1082/2006 (EE) ERREGELAMENDUA,EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA

2006ko uztailaren Sekoa,

Lurralde Lankidetzako Europako Taldeari (AECT) buruzkoa

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR BATASUNeko KONTSEILUAK,

Europako Erkidegoa eratzekeo Tratatuak, haren 159. artikuluko hirugarren paragrafoa, bereziki, aztertu dute,

Batzordearen proposamena aztertu dute,

Europako Ekonomia eta Gizarte Komitearen irizpena aztertu dute ⁽¹⁾,

Eskualdeetako Komitearen irizpena aztertu dute ⁽²⁾,

Tratatuaren 251. artikuluan ezarritako prozedurari jarraiki ⁽³⁾,

Honako hauek kontuan hartuta:

- (1) Tratatuaren 159. artikuluko 3. paragrafoak ekintza zehatzak egiteko aukera ematen du, artikuluko horren lehen paragrafoan jasotzen diren funtsetatik kanpo, Tratatuak jasotako ekonomia- eta gizarte-koherentsia lortzeko helburua betetzeko. Europar Batasun osoak garapen orekatua izateak eta ekonomia-, gizarte- eta lurralde-koherentsia sendotzeko lurralde-lankidetzak estutzea eskatzen dute. Horretarako, lurralde-lankidetzako ekimenak abiarazteko baldintzak hobetzeko neurri egokiak hartu behar dira.
- (2) Estatu kideek eta, bereziki, eskualdeko eta tokiko agintariek, hainbat legeria eta prozedura nazionalak jarraiki, lurralde-lankidetzako jarduerak abiarazteko eta kudeatzeko izaten dituzten zailtasun handiak aintzat hartuta, aipatu horiek txikitzeko neurri egokiak hartu behar dira.
- (3) Bereziki, Europar Batasunak bere hedapenaren ondorioz izan dituen lurralde- eta itsas mugen kopurua handitu dela aintzat hartuta, beharrezkoa da Europar Batasunean lurralde-lankidetzak sendotzeko erraztasunak jartzea.
- (4) Egungo tresnak, hala nola Ekonomia Intereseko Europako Taldea, ez dira oso egokiak izan Europar Batasuneko Interreg ekimenari jarraiki, 2000-2006 programazio-aroan, lankidetzak egituratua antolatuzeko.

(5) Europako Kontseiluko ondareak hainbat aukera eta testuinguru ematen ditu eskualdeko eta tokiko agintarien arteko mugaz gaindiko lankidetzarako. Tresna hau ez dator testuinguru horiek saihestera edo Europar Batasunaren lurralde osoan akordio horiek guztiak modu berean arautzeko arau komun zehatzen multzoa ematera.

(6) Kontseiluaren 1083/2006 (EE) Erregelamendua, 2006ko uztailaren 11koak, Eskualdeko Garapeneko Europako Funtzari, Europako Gizarte Funtzari eta Kohesio Funtzari⁽⁴⁾ buruzko xedapen orokorreko buruzkoak, Europako lurralde-lankidetzaren aldeko baliabideak handitzen ditu.

(7) Era berean, nahitaezkoa da erraztasunak eta laguntza ematea lurralde-lankidetzako neurriak burutzeko Europar Batasuneko finantza esku-hartzetik kanpo.

(8) Lurralde-lankidetzaren oztipoak gaintzeko, beharrezkoa da Europar Batasuneko mailan lankidetzak-tresna bat ezartzea Europar Batasuneko lurraldean izaera juridikoa duten lankidetzak taldeak sortzeko, «Lurralde-Lankidetzako Europako Taldeak» (AECT) izena dutenak. AECTaren baliabideak hautatzeko izaera izan beharko luke.

(9) Egokia da AECTak bere kideen eta, bereziki, osatzen duten eskualdeko eta tokiko autoritateen izenean eta kontura jarduteko eskumena izatea.

(10) AECTaren funtzioak eta eskumenak hitzarmen batean definitu behar dira.

(11) AECTa jardun ahal izango da Europar Batasunarekin batera finantzatutako lurralde-lankidetzako programa edo proiektuak aplikatzeko —bereziki Egitura Funtzen konturako programa eta proiektuak, 1083/2006 (EE) Erregelamenduari eta Eskualdeen Garapenerako Europako Funtzari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006ko uztailaren 5eko 1080/2006 (EE) Erregelamenduari⁽⁵⁾ jarraiki—edo estatu kideen eta beren eskualdeko eta tokiko autoritateen ekimenei jarraiki abiarazitako lurralde-lankidetzako ekintzak egiteko, Europar Batasunak finantza-arloan esku hartu edo ez.

(12) AECTak sortzeko ez dio eskualdeko edo tokiko autoritateen eta estatu kideen finantza-erantzukizunari eragiten, Europar Batasuneko funtzen eta funts nazionalen kudeaketari

¹ EO C 255, 2005.10.14koa, 76. or.

² EO C 71, 2005.3.22koa, 46. or.

³ Europako Parlamentuaren Irizpena, 2005eko uztailaren 6koa (oraindik ere Egunkari Ofizialean argitaratu gabea), Kontseiluaren 2006ko ekainaren 12ko Jarrera Bateratua (oraindik ere Egunkari Ofizialean argitaratu gabea) eta Europako Parlamentuaren 2006ko uztailaren 4ko Jarrera (oraindik ere Egunkari Ofizialean argitaratu gabea).

⁴ Ikusi Egunkari Ofizial honen 25. orria.

⁵ Ikusi Egunkari Ofizial honen 1. orria.

dagokionez.

- (13) Ezingo da hitzarmenik egin eskualdeko eta tokiko agintariak, botere publikoak diren aldetik, duten agintearen inguruan —polizia- eta araugintza-arloetan, bereziki—.
- (14) AECTak bere estatutuak ezarri behar ditu eta gobernu-organoak eta bere aurrekontua eta finantza-erantzukizunaren erabilera arautzeko organoak izan behar ditu.
- (15) Lurralde-lankidetzaren baldintzak Tratatuaren 5. artikuluan jasotzen den subsidiarotasun printzipioarekin bat sortu behar dira. Artikulu horretan aipatzen den proportzionaltasun printzipioarekin bat, erregelamendu honek ez ditu helburu horiek lortzeko beharrezko funtzioak gaudituko; izan ere, AECTaren baliabideak hautazko izaera du, estatu kide bakoitzeko ordena konstituzionalarekin bat.
- (16) Tratatuaren 159. artikulua hiru hiru leterekin ez du uzten xedapen horretan oinarritutako legeriak hirugarren herrialdeetako entitateak barne har ditzan. Hala ere, AECT bat sortzea ahalbidetzen duen Europar Batasuneko neurri bat hartzeak ez du baztertu behar hirugarren herrialdeetako entitateek erregelamendu honen arabera sortutako AECT batean parte hartzea, betiere, hirugarren herrialdeko legeriak edo estatu kideen eta hirugarren herrialdeen arteko akordioek halaxe uzten badute.

ERREGELAMENDU HAU ONARTU DUTE:

1. artikulua

Lurralde Lankidetzako Europako Taldearen izaera

1. Europar Batasunaren lurretan, Lurralde Lankidetzako Europako Taldea (aurrerantzean «AECT») sortu ahal izango da, erregelamendu honetan jasotzen diren baldintza eta modalitateei jarraiki.
2. AECTaren helburua bere kideen artean mugaz edo nazioz gaidiko, eta/edo eskualde arteko lankidetzak (aurrerantzean «lurralde-lankidetzak» deituko zaio) erraztu eta sustatzea izango da, 3. artikuluko 1. paragrafoan azaltzen den moduan, ekonomia- eta gizarte-kohesioa sendotzeko helburu bakarrekin.
3. AECTak izaera juridikoa izango du.
4. Estatu kide bakoitzean, estatu kide horren legeria nazionalak pertsona juridikoei aitortzen dien jarduteko eskumen juridiko zabalena izango du AECTak. Bereziki, ondasun higigarriak edo ondasun higiezinak erosi edo besterendu ahal izango ditu; langileak kontratatu eta epaieketa batean alderdi gisa aritu ahal izango da.

2. artikulua

Lege aplikagarria

1. AECTa honakook arautuko dute:
- Erregelamendu honek;
 - Erregelamendu honek espresuki baimentzen duenean, 8. eta 9. artikuluetan aipatzen diren hitzarmeneko eta estatutuak xedapenek;
 - Erregelamendu honek arautzen ez dituen edo hein batean soilik arautzen dituen kontuetan, AECTak helbide soziala duen estatu kideko zuzenbideak.

AECT bat arautuko duen zuzenbidearen aukera egin behar denean, Europar Batasuneko zuzenbidearekin eta nazioarteko zuzenbide pribatuarekin bat, AECTa bere helbide soziala dagoen estatu kideko erakundetzat hartuko da.

2. Estatu kide batek bere arau juridiko aplikagarri propioak dituzten hainbat lurralde-entitate hartzen dituenean, aplikagarria den legeriari egiten zaizkion erreferentziei, 1. paragrafoko c) idatz-zatian xedatu denarekin bat, aipatu entitateen gaineko legeria hartuko du barne, kasuan kasuko estatu kidearen egitura konstituzionala aintzat hartuz.

3. artikulua

AECTaren osaera

1. AECTa kideek osatzen dute, legeria nazionalaren arabera dituzten eskumenen muga barruan; kideok honako mailetakoren batekoak edo batzuetakoak izan daitezke:
- Estatu kideak;
 - eskualdeko agintariak;
 - tokiko agintariak;
 - Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2004ko martxoaren 31ko 2004/18/EE Zuzentarauaren 1. artikuluko 9. paragrafoaren bigarren leterekin bat, zuzenbide publikoak arautzen duen organismoa. Aipatu zuzentaraua obra, hornidura eta zerbitzuetarako kontratu publikoak esleitzeko prozeduren koordinazioari buruzkoa¹) da.

Kategoria horietako batekoak edo batzuetakoak diren organismoek osatutako elkarteak ere kideak izan daitezke.

2. AECTa gutxienez bi estatu kideren lurretan

¹ EO L 134, 2004.4.30ekoa, 114. or. Azken aldiz Batzordearen 2083/2005 (EE) Erregelamenduak aldatutako zuzentaraua (EO L 333, 2005.12.20koa, 28. or.).

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

kokaturik dauden kideek osatuko dute.

4. artikulua

AECTa sortzea

1. AECTa sortzeko erabakia kide izango direnen ekimenez hartuko da.
2. Etorkizuneko kide bakoitzak:
 - a) osatzeko aintzat hartu duen legeria eman duen estatu kideari jakinaraziko dio AECT batean parte hartzeko asmoa, eta
 - b) estatu kide horri erregelamendu honen 8. eta 9. artikuluetan proposatzen diren hitzarmenaren eta estatutuen kopia bidaliko dio.
3. Etorkizuneko kideak 2. paragrafoan aipatu jakinarazpena egin ondoren, kasuan kasuko estatu kideak, bere egitura konstituzionala aintzat hartuz, AECTan parte hartzea baimenduko dio etorkizuneko kideari, honako kasuetan salbu: parte-hartze hori erregelamendu honekin edo legeria nazionalarekin bat ez datorrela –etorkizuneko kidearen eskumenak eta obligazioak barne– edo parte-hartze hori egokia ez dela uste badu, aipatu estatu kidearen interes publikoko edo ordena publikoko arrazoiengatik. Kasu horretan, estatu kideak baimena ez emateko arrazioen aitortpena egingo du.

Arau orokor gisa, estatu kideak erabaki bat hartuko du 2. paragrafoaren arabera onargarria den eskaria jasotzen duen egunetik hiru hilabeteko epean.

Etorkizuneko kide bat AECTko partaide izan daitekeen erabakitzean, estatu kideek beren arau nazionalak aplikatu ahalko dituzte.

4. Estatu kideek jakinarazpenak eta dokumentuak jasotzeko autoritate eskumendunak izendatuko dituzte, 2. paragrafoan ezartzen denari jarraiki.
5. Kideek 8. artikuluan aipatzen den hitzarmena eta 9. artikuluan aipatzen diren estatutuak onartuko dituzte, artikulua honen 3. paragrafoarekin bat, estatu kideen onespenerekin duen koherentzia bermatuz.
6. Hitzarmenaren aldaketa oro eta estatutuen aldaketa esanguratsu oro estatu kideek onartu beharko dute, artikulua honetan azaldutako prozedurarekin bat. Estatutuen aldaketa esanguratsutzat hartuko dira, zuzenean edo zeharka, hitzarmena aldatzen dutenak.

5. artikulua

Nortasun juridikoa hartzea eta aldizkari ofizialean argitaratzea

1. 9. artikuluan aipatu estatutuak eta horien ondorengo aldaketak AECTak helbide soziala duen estatuan aplikagarria den zuzenbide nazionalarekin bat erregistratuko eta/edo argitaratuko dira. AECTak

nortasun juridikoa hartuko du erregistratzen denean edo argitaratzen denean, zer gertatzen den lehenago. Kideek eragindako estatu kideei eta Eskualdeetako Komiteari hitzarmenaren eta estatutuen erregistroaren eta/edo argitalpenaren berri emango diete.

2. AECTak honakoa bermatuko du: estatutuak erregistratu eta/edo argitaratu ondorengo hamar laneguneko epean, Europako Erkidegoetako Argitalpen Ofizialen Bulegoari *Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean* ohar bat argitaratzeko eskatzen zaiola. Ohar horretan, AECTa sortu dela jakinaraziko da eta horren izenaren, helburuen, kideen eta helbide sozialaren berri emango da.

6. artikulua

Funts publikoen kudeaketaren kontrola

1. AECTaren funts publikoen kudeaketaren kontrola AECTak helbide soziala duen estatu kideko autoritate eskumendunek antolatuko dute. AECTak helbide soziala duen estatu kideak lan horren ardura izango duen autoritate eskumenduna izendatuko du, AECTan parte-hartzeari onespena eman baino lehen 4. artikuluekin bat.
2. Gainontzeko estatu kide interesdunen legeria nazionalak hala eskatzen badu, AECTak helbide soziala duen estatu kideko autoritateek xedapenak hartuko dituzte kasuan kasuko estatu kide interesdunetako agintariak AECTak aipatu estatu kideen lurretan egiten dituen ekintzak kontrolatzeko eta informazio egoki guztia elkartrukatzeko.
3. Kontrol guztiak nazioarteko mailan onartutako ikuskapen-arauekin bat egingo dira.
4. 1., 2. eta 3. paragrafoetan xedatutakoa gorabehera, 7. artikuluko 3. paragrafoaren lehen eta bigarren lerroketan AECTetarako aurreikusten diren funtzioen barruan Europar Batasunarekin batera finantzatutako ekintzak sartzen badira, Europar Batasuneko funtsak kontrolatzeko legeria egokia aplikatuko da.
5. AECTak helbide soziala duen estatu kideak kontrolatzen izandako zailtasunen berri emango die gainerako estatu kide interesdunei.

7. artikulua

Funtzioak

1. AECTak bere kideek erregelamendu honekin bat ematen dizkioten funtzioak izango ditu. Funtzioak kideek adostutako hitzarmenaren definitutako dira, 4. eta 8. artikuluekin bat.
2. AECTa ematen zaizkion funtzioen muga arituko da, zeinak ekonomia- eta gizarte-kohesioa sendotzeko lurralde-lankidetzara erraztu eta sustatzera mugatuko baitira. Aipatu funtzioak kideek zehaztuko dituzte; horiek guztiak, zuzenbide nazionalarekin bat, kide bakoitzaren eskumenaren eremuan egon behar dira.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

3. Zehazki, AECTaren funtzioak, batez ere, Europar Batasunarekin batera finantzatutako lurralde-lankidetzaren programak edo proiektuak egitera mugatuko dira, Eskualdeko Garapeneko Europako Funtsari, Europako Gizarte Funtsari eta/edo Kohesio Funtsari zordundutakoak bereziki.

AECTek lurralde-lankidetzako beste ekintza zehatz batzuk egin ahal izango dituzte beren kideen artean eta 1. artikulua 2. paragrafoan aipatzen den helburuaren testuinguruan, Europar Batasunak finantza-ekarpena egin ala ez egin.

Estatu kideek AECTek Europar Batasuneko finantza-ekarpenik gabe egin ditzaketen funtzioak mugatu ahal izango dituzte. Hala ere, funtzio horiek, gutxienez, 1080/2006 (EE) Erregelamenduaren 6. artikuluan zerrendatzen diren lankidetzak-ekintzak barne hartuko dituzte.

4. Kideek ez diete AECTari esleituko zuzenbide publikoko eskumenik, ez eta estatuaren edo beste autoritate publiko batzuen interes orokorrak babestera bideratutako funtziorik ere, hala nola: polizia- eta araugintza-eskumenak, justiziakoak eta atzerri-politikakoak.

5. AECTko kideek aho batez erabaki ahal izango dute funtzioak bere kideetako bati eskuordetzan uztea.

8. artikulua

Hitzarmena

1. Kideek 4. artikuluaekin bat aho batez egindako hitzarmen batek arautuko du AECTa.

2. Hitzarmenak barne hartuko du:

- a) AECTaren izena eta helbide soziala, zeina estatu kide batean kokaturik egon behar baita, AECTko kide bat, gutxienez, bertako legediari jarraiki eratu bada;
- b) AECTak bere zeregina garatu dezakeen lurraldearen zatia;
- c) AECTaren helburu zehatza eta funtzioak, iraupena eta desegiteko baldintzak;
- d) AECTko kideen zerrenda;
- e) hitzarmenaren interpretazioan eta aplikazioan aplikagarria den legeria, zeina AECTaren helbide soziala dagoen estatu kidearen legeria izan beharko baita;
- f) elkarren aitopenerako akordioak, finantza-kontrolari dagozkionak barne, eta
- g) hitzarmena aldatzeko prozedurak, zeinak 4. eta 5. artikuluetan ezarritako obligazioak beteko baitituzte.

9. artikulua

Estatutuak

1. AECTko kideek aho batez onartuko dituzte estatutuak, hitzarmenean oinarrituz.

2. AECTaren estatutuek, gutxienez, hitzarmeneko xedapen guztiak jasoko dituzte, eta baita honako elementuok ere:

- a) gobernu-organoen funtzionamendu-arauak eta horien eskumenak; baita kideek gobernu-organoean izango duten ordezkari-kopurua ere;
- b) AECTaren erabakiak hartzeko prozedurak;
- c) laneko hizkuntza edo hizkuntzak;
- d) funtzionatzeko modalitateak, langileen kudeaketari dagokionez, batez ere, kontratazio-baldintzak eta langileen kontratuen izaera;
- e) kideen finantza-ekarpenaren modalitateak eta aplikagarriak diren aurrekontuaren arauak eta kontabilitatekoak, AECTko kide bakoitzak AECTari dagokionez dituen finantza-kontuak barne;
- f) kideen erantzukizunaren modalitateak, 12. artikulua 2. paragrafoan xedatzen denarekin bat;
- g) kanpoko ikuskapen independentea esleitzeko ardura duten autoritateak;
- h) estatutuak aldatzeko prozedurak, zeinek 4. eta 5. artikuluetan ezarritako obligazioak beteko baitituzte.

10. artikulua

AECTaren antolakuntza

1. AECTak, gutxienez, honako gobernu-organok izan behar ditu:

- a) batzarra, zeina bere kideen ordezkariak osatuko baitute;
- b) zuzendari bat, zeinak AECT ordezkatuko baitu eta bere izenean jardungo baita.

2. Estatutuek gaitasunak argi definiturik dituzten gobernu-organo gehigarriak ezarri ahal izango dituzte.

3. AECTa bere gobernu-organoen ekintzen erantzule izango da hirugarrenei dagokienez, baita ekintza horiek AECTaren zereginak barne hartzen ez baditu ere.

11. artikulua

Aurrekontua

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

1. AECTak urteko aurrekontua ezarriko du, batzarrak onartukoa. Aurrekontu horrek bereziki jasoko ditu funtzionamendu-gastuetarako sail bat eta, hala badagokio, ustiapen-atal bat.

2. Kontuak egiteko orduan eta, hala eskatzen denean, horiei erantsitako urteko kudeaketa-txostena prestatzeko eta kontu horiek ikuskatu eta argitaratzeko unean, 2. artikuluko 1. paragrafoaren c) idatz-zatian xedatutakoa beteko da.

12. artikulua

Likidazioa, kaudimen-gabezia, ordainketa-etendura eta erantzukizuna

1. Likidazioari, kaudimen-gabeziari, ordainketa-etendurari eta antzeko prozedurei dagokionez, AECTa bere helbide soziala dagoen estatu kideko legeriari jarraiki arautuko da, 2. eta 3. paragrafoetako kontrako xedapenak salbu.

2. AECTa bere zorren erantzule izango da, zorren izaera dena dela ere.

AECT baten aktiboak bere erantzukizunei erantzuteko adinakoak ez direnean, kideek AECTaren zorrak bereganatuko dituzte, zorren izaera dena dela ere, eta kide bakoitzaren zatia ekarpenarekiko proportzionala izango da, salbu eta kide egiteko aplikatutako legeria nazionalak bere erantzukizuna ezeztatzen edo mugatzen badu. Ekarpen horren modalitateak estatutuetan ezarriko dira.

AECT bateko kide baten (gutxienez) erantzukizuna mugatua bada, kide egiteko aplikatutako legeria nazionala aintzat harturik, gainontzeko kideek ere beren erantzukizuna mugatu ahal izango dute estatutuetan.

AECTko kide izateari utzi ondoren, AECTan egon diren artean egindako ekintzetatik etorritako obligazioak bereganatzeko konpromisoa har dezakete kideek estatutuetan.

AECT baten izenean, bere kideek erantzukizun mugatua badute, «mugatua» terminoa erantsi beharko da.

Erantzukizun mugatuko kideak dituen AECT baten hitzarmena, estatutuak eta kontuak jakinaraziko dira, AECTak helbide soziala duen estatu kidearen legeriari jarraiki osatutako erantzukizun mugagabea duten gainontzeko erakunde juridikoen moduan, gutxienez.

Estatu kide batek bere lurrian erantzukizun mugatuko kideak dituen AECTa erregistratzea debekatu dezake.

3. Egitura Funtsek eta/edo Kohesio Funtsek AECTei emandako finantzaketan izan dezaketen finantza-erantzukizunari kalterik egin gabe, estatu kideek ez dute AECT batetik finantza-erantzukizunik izango, erregelamendu honi jarraiki, horren kide ez badira.

13. artikulua

Interes publikoa

AECT batek ordenari, segurtasunari, osasunari edo moral publikoari dagokionez estatu kide baten xedapenen aurka doan edo estatu kide baten interes publikoaren kontrakoa den ekintzaren bat egiten badu, aipatu estatu kideko organo eskumendunak ekintza hori bere lurraldean egitea debekatu dezake edo bere legediarekin bat kide duen kideei AECT-tik ateratzeko eska diezaieke, AECTak ez badio ekintza horri amaiera ematen.

Aipatu debekuak ez dira AECTa osatzen duten kideen arteko lurralde-lankidetzat mugatzeko bide arbitrarioak edo ezkutukoak. Autoritate judizial batek organo eskumendunaren erabakia berrikusteko aukera dago.

14. artikulua

Desegitea

1. Hitzarmenean desegiteari buruz esaten dena dena dela ere, legezko interesa duen edozein autoritate eskumendunek, eskumena duen organo judizialak edo AECTak helbide soziala duen estatu kideko autoritate eskumendunak AECTa desegiteko agindu dezake, AECTak 1. artikuluko 2. paragrafoan edo 7. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen ez dituela estimatzen duenean eta, bereziki, AECTa 7. artikuluan ezarritako funtzioez gaindi aritzen bada. AECT bateko kideak hainbat estatu kideetako legeria aplikatuz elkartu badira, hori desegiteko eskaera aurkezten bada, eskumena duen organo judizialak edo administraziokoak horren berri emango die estatu kide horiei guztiei.

2. Eskumena duen organo judizialak edo administraziokoak epe bat eman ahal izango dio AECTari, bere egoera arautu dezan. Epe horren barnean ez bada arautzen, eskumena duen organo judizialak edo administraziokoak desegitea aginduko du.

15. artikulua

Jurisdikzioa

1. AECT baten ekintza edo ez-egiteengatik kaltetuak izan direla uste duten hirugarrenek epaiketa batean beren egintzak gauzatzeko eskubidea izango dute.

2. Erregelamendu honetan besterik esaten ez denean, Europar Batasunean jurisdikzioari dagokionez dagoen legeria aplikatuko da AECT batek esku hartzen duen auzietan. Europar Batasuneko legerian aurreikusten ez diren kasuetan, auziak ebazteko eskumena duten organo judizialak AECTak helbide soziala duen estatu kideko organo judizialak izango dira.

Auziak ebazteko eskumena duten organo judizialak aurka egin zaion erabakia hartu duen estatu kideko

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

organo judizialak izango dira, 4. artikuluko 3. eta 6. paragrafoei edo 13. artikuluari jarraiki.

3. Erregelamendu honetako xedapenek ez diote eragingo hiritarrek AECT bateko kide diren organo publikoen aurka helegitea jartzeko eskubide konstituzional nazionala erabiltzeko eskubideari, honakooi dagokienez:

- a) AECT batek egiten dituen ekintzen gaineko administrazioaren ebazpenei;
- b) zerbitzua beren hizkuntzan hartu ahal izateari, eta
- c) informazioarako sarbideari.

Kasu horietan, helegitea jartzeko eskubidea erabiltzeko aukera ematen duen Konstituzioaren estatu kidekoak izango dira organo judizial eskudunak .

16. artikulua

Azken xedapenak

1. Estatu kideek xedapen egoki guztiak hartuko dituzte erregelamendu hau modu eraginkorrean aplikatzen dela bermatzeko.

Estatu kide bateko legeria nazionalak hala eskatzen badu, estatuak zerrenda zehatz bat egin ahal izango du bere legeriaren arabera eraturako AECT bateko kideek lurralde-lankidetzari dagokionez estatu kide

Erregelamendu hau derrigorrezkoa izango da bere elementu guztietan eta zuzenean aplikagarria estatu kide bakoitzean.

Estrasburgon egina, 2006ko uztailaren 5ean.

Europako Parlamentuaren izenean
Presidentea
J. BORRELL FONTELLES

horren barruan dituzten zereginei buruz, betiere, 3. artikulua 1. paragrafoaren zentzuan.

Estatu kideak Batzordeari eta gainontzeko estatu kideei behar bezala jakinaraziko die artikulua honi jarraiki hartutako edozein xedapen.

2. Estatu kideak tasak ezarri ahal izango dituzte hitzarmena eta estatutuak erregistratzeko. Hala ere, tasa horiek ezin izango dituzte erregistroaren administrazio-kostuak gainditu.

17. artikulua

Txostena eta berrikuspen-klausula

2001eko abuztuaren 1a baino lehen, Batzordeak erregelamendu honen aplikazioari buruzko txostena aurkeztuko die Europako Parlamentuari eta Kontseiluari, aldatzeko proposamenekin batera, hala badagokio.

18. artikulua

Indarrean jartzea

Zuzentarau hau *Europar Batasuneko Egunkari Ofizialean* argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Beranduenera ere, 2007ko abuztuaren 1ean aplikatuko da, 16. artikulua salbu. Azken hori, 2006ko abuztuaren 1etik aurrera aplikatuko da.

Kontseiluaren izenean
Presidentea
P.LEHTOMÄKI